



## Bidegorri berria

Oñatitik Arrasatera bizikletatik jaitsi gabe

**Bizikletaz**



## Txirrinka elkartearekin hizketan

Polémica sobre la obligatoriedad del casco en ciudad

Pautas para mejorar la convivencia entre ciclistas y peatones



## Aurkibidea


## Índice

Elkarrizketa:  
Txirrinka Bizikletazaleen  
Elkartea



3-5

Gure bidegorriak barrutik:  
Epele - Oñati



6-8

Kaskoa, derrigorrezkoa  
hirietan?



9

Oinezkoen eta ziklisten  
arteko elkarbizitza, gure esku



10-12

Entrevista:  
Txirrinka Bizikletazaleen  
Elkartea

Nuestros bidegorris por dentro:  
Epele - Oñati

Polémica sobre la obligatoriedad  
del casco en la ciudad

Ciclistas y peatones, convivencia  
necesaria

- Zuzendaritza eta Koordinazioa / Dirección y Coordinación: Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua / Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias • Testuak / Textos: Xabier Sagardia (eragin.com)
- Argazkiak / Fotografías: Xabier Sagardia • Diseinua / Diseño: eragin.com • Maketazioa / Maquetación: eragin.com • Argitaratzen du / Edita: Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua / Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias

Lege gordailua / Depósito legal: SS-735-2009

**Gipuzkoa Bizikletaz**

[www.gipuzkoabizikletaz.net](http://www.gipuzkoabizikletaz.net)

[bizikletaz@eragin.com](mailto:bizikletaz@eragin.com)

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako plaza, z/g  
20004 Donostia-San Sebastián



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**

## AITOR UGALDE, MIGUEL ANGEL LETAMENDI ETA DANIEL ENPARANTZA TXIRRINKA ELKARTEA

“Bizikleta era naturalean egunerokoan  
erabiltzeko aukera dago orain”

**Pertseberantzia, hau da, sinisten den horri temati eutsiz, lortu daitezkeen gauzen adibide garbiena da Oñatiko Txirrinka Bizikletazaleen Elkarte. Oztopoak oztopo, pedalkada txarrei aurre eginez, eta gutxika bada ere, urteak joan urteak etorri, bizikletaren normalizazioaren bidean Oñatik eman dituen urratsen atzean egon da beti. 2001ean sortu zen Txirrinka elkarte eta ordutik, Oñatiko eta**

**inguruko biztanle askoren hats eta laguntzarekin, bizikletaren kultura aldarrikatu du erakunde publikoen zein herritarren beraien aurrean. Epele-Oñati bidegorriaren inaugurazioa aitzakia hartuta, Txirrinkako kideengana jo dugu gehiago jakin nahian. Aitor Ugalde, Miguel Angel Letamendi eta Daniel Enparantzarekin bildu gara herriko kiroldagiko gela batean lasai mintzatzeko.**



**Noiz sortu zen eta zergatik Txirrinka elkartea?**

**Daniel Enparantza (D):** Estatu mailako topaketa batzuetatik etorri nintzen eta beste leku batzuetako esperientziak ezagutu nituen. Ohartu nintzen Oñatin ez zegoela ezer eta aukera bazegoela zerbait egiteko. Idatzi bat egin genuen eta horrekin batera sinadura bilketa bat burutu genuen herrian udala presionatzeko. Udalak ez zuen bere plangintzan bizikleta kontuan hartzen. 2003an udalaren arau subsidiarioetan alegazioak aurkeztu genituen Kalapieren laguntzarekin. 2004an Diputazioak teknikari bat jarri zuen bizikleta plana egiteko eta foro bat egin zen herriko eragileekin.

**Aitor Ugalde (A):** Oñatin bazegoen jendea bizikletan ibiltzen zena. Herriaren ezaugarriak kontutan hartuta, bizikletan ibiltzeko leku aproposa da neurri handi batean, aldapa handirik ez duelako. Hortik hasi ginen kontzientziazten, horren beharra planteatzen, aldarrikapena egiten, mahai inguruak antolatzen, arau subsidiarioari alegazioak egiten, pixkanaka-pixkanaka, bizikletaren erabileraren alde.

**Laburbilduz, zuen lana bizikletaren aldeko hautua udalak bere egin zezan presionatzea izan zen, ezta?**

**Miguel Angel (M.A.):** Bai, bizikletan sinistea. Eta gero herriak ere parte hartu du. Azkenean, gu hasi, baina jendeak, herriak, asko bultzatu du gai hori.

**Zer lortu duzue? Zer aldatu da Oñatin hasi zinetenetik?**

**D:** Bide sare bat egitea posible izan da. Bizikleta era naturalean egunerokoan erabiltzeko aukera dago orain. Gero, San Prudentzio-Oñati bidegorria errealitatea izatea. Aipatu behar dugu azpiegitura hau egiteko parte aktiboa izan garela, Aldundiarekin batera elkarlanean aritu garela, batik bat bide tarte askotan hobekuntzak proposatuz.

**A:** Nik uste dut bi gauza lortu direla. Batetik, azpiegiturak, bizikletentzako bidegorriak kontuan edukitzea, oraindik askoz ere gehiago egiteko egongo den arren. Bestetik, gu hasi ginenetik bizikletaren erabilera ulertzeko modua aldatu egin dela uste dut. Orain arte bizikleta kirola egiteko zen eta orain egunerokoan herri barruan ibiltzeko erabiltzen da. Gainera, lehen baino askoz gehiago erabiltzen da.

**Zer nolako ekintzak antolatu izan dituzue?**

**D:** Panfletoak atera, mahai inguruak, masa kritikoa, sinaduren bilketa,



bizikleta martxak... Guztia gure poltsikotik ordainduta.

**M.A.:** Ikusi genuenean udalak ez zuela aurrera joateko gogo handirik, hilean behin bizikleta martxak egiten hasi ginen.

### Zer uste duzue ekarriko diola inauguratu berri den Epele-Oñati bidegorri berriak herriari?

**M.A.:** Aisialdirako izugarriko azpiegitura izango da, bai oinez joateko bai bizikletaz ibiltzeko. Gero, enpresa asko hartzen ditu, hortaz lanera joateko ere oso aproposa da. Herrien arteko lotura ere ekarriko du, Arrasate, Bergara...

**D:** Arrasatera adibidez, kafe bat hartzera joan zaitezke inongo problemarik gabe. Eta nahiz eta bidegorria zabaldu berria den, dagoeneko lanerako joan-etorrietan nabaritu da erabiltzaile kopurua handitzen hasi dela. Aurrerantzean, kotxea hartu gabe lanera doazen ziklisten kopuru hori hazi egingo dela uste dugu.

**A:** Seguritatea ematen du, orain arte ez zegoena. Lehen Oñatitik Arrasate aldera bizikletan abiatzeko bi aldiz pentsatu behar zenuen. Hori behintzat badauka. Puntu batzuk hobetu beharra dago, baina behintzat badago bide seguru bat, lehen ez zegoen aukera bat.

### Jendeak ongi hartu du?

**M.A.:** Orokorrean bai. Ni aurreko domekan joan nintzen oinez eta jende pila bat zebilen. Umeak, helduak, bizikletan, oinez...

### Eta hemendik aurrera zer? Nondik joko du Txirrinka taldeak?

**D:** Gure artean hitz egin dugu honetaz. Orain arte egin denaren segimendua egitea da helburua eta orain dagoena ondo erabiltzea, elkarbizitza egokia sustatuz erabiltzaileen artean.

### Bukatzeko, eta gaia aldatuz, zer deritzozue, kaskoaren erabilerari dagokionean, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak aurkeztu berri duen Zirkulazioaren Araudi Orokorraren erreforma proiektuari? Talde bezala jarrerarik duzue?

**D:** Nik kaskoa erabiltzen dut, baina uste dut jendeak aukeratu behar duela eta ez dela obligazio bat izan behar.

**A:** Nik kaskoaren erabilera bultzatu egingo nuke, baina ez behartu. Nik neronek erabiltzen dut. Egunen batean ahaztu egiten bazait, faltan botatzen dut.

Gu hasi ginen, baina jendeak, herriak, asko bultzatu du



### TXIRRINKA O LA PERSEVERANCIA

La asociación de ciclistas Txirrinka de Oñati es un ejemplo de que con perseverancia y trabajo se pueden lograr muchas cosas. Seguramente menos de lo que desearían, pero lo cierto es que hoy por hoy en Oñati la cultura de la bicicleta como medio de transporte cotidiano va camino de "naturalizarse". Txirrinka comenzó a dar sus primeros pasos en 2001 y desde entonces no ha cesado en su campaña de proselitismo en favor de las dos ruedas. Su labor se ha centrado básicamente en dos ejes: por un lado, convencer a instituciones y ciudadanos de la necesidad de implantar una movilidad sostenible en la localidad y, por otro, requerir actuaciones concretas para que ésta se lleve a cabo.

En los últimos años, Oñati ha registrado un aumento del uso de la bicicleta, un progresivo cambio de mentalidad con respecto a la bicicleta y la construcción de diferentes infraestructuras y dotaciones (vías ciclistas, señalización, aparcamientos...). Txirrinka siempre ha estado detrás, pero desde la asociación no se quieren arrogar ningún logro en exclusiva. Lo recalcan una y otra vez, sacudiéndose protagonismos de encima, que el apoyo y la participación de la ciudadanía ha sido clave.

# Garraioa, aisia eta herrien arteko lotura

## EPELE-OÑATI BIDEGORRIA

**Debagoieneko bidegorri sarea osatuz doa apurka-apurka. Arrasate (Epeletik abiatzen da) eta Oñatiko herriak lotzen dituen bide ziklista hau da azken mugarrria. Zabaldu berria, inaugurazio ofiziala baino egun batzuk lehenago bisitatu dugu, beti bezala bizikletaren gainean, bertatik bertara ezagutzeko. Gure bisita honetatik bi gauza garbi atera ditugu: aisialdirako eta lanera joateko zein eguneroko mugikortasunerako azpiegitura ezin hobea da.**

Baina ez hori bakarrik. Txirrinka elkarteko lagunek herrien arteko lotura sustatu dezakeela azpimarratu digute, izan ere, orain joan etorria

egin daiteke Arrasatetik Oñatira (eta alderantziz) bizikletatik jaitsi gabe. Inguruko baserri eta auzoko biztanleak ere bidegorria eskura dute. Bederen, autoa ez hartzeko aukera badago orain.

Epele-Oñati bidegorriak 8,5 kilometro inguru ditu, hiru zatitan banatuta. Epele-San Prudentzio, San Prudentzio-Zubillaga auzoa eta Zubillaga auzoa-Oñati. Bidegorriak 3,50 metroko zabalera du ibilbidearen zati handiengan: 2 metroko errei bat ziklistentzako da eta 1,5 metroko beste bat oinezkoentzako. Hortaz, erabilera bananduko bidegorria dugu hau, iragarritako lekuetan izan ezik, non erabilera mistoa edo partekatua duen, ibilgailu motordunak ere onartuak daudelako. Tarte hauek industria guneetan eta baserri inguruetan aurkituko ditugu batez ere, hauetara sarbidea emateko.











## Oinezkoen eta ziklisten arteko elkarbizitza, gure esku

**Oinezko eta ziklisten arteko elkarbizitza hobetzea gipuzkoarrok daukagun zereginetako bat da. Noizean behin, gatazkak, istripuak, eztabaidak... gertatzen dira bi kolektiboen artean. Eta askotan saihestu genitzake. Jarraian, gomendio batzuk emango ditugu bizikidetzahalik eta erosoena izan dadin.**

“Bizikletaren kultura” zabaltzearen beharra aipatu dugu askotan aldizkari honetan. Apurka badoa gizartean barneratzen, baina gaztea da oraindik. Horregatik, askotan zalantzak sortzen zaizkigu, ez dakigu zein den jokabide egokiena edo zuzenean ez

dugu “aldamenekoa” errespetatzen. Duela bi urte Gipuzkoako Foru Aldundiak seinaleztapen berria ezarri zuen bere eskumeneko bidegorrietan erabiltzaileei bizikleta bideen sarea nola erabili laguntzeko. Izan ere, kontutan izan behar dugu adin guztietako jendeak erabiltzen dituela gure bidegorriak eta bertatik ibiltzeko arrazoi diferenteak eta bidegorria ulertzeko modu desberdinak dituela. Argi dago bestalde, bidegorri guztiak ez direla berdinak eta ez direla modu berdinean erabili behar.

Hainbat udalek ere, Donostiakoak kasu, bizikleta erabiltzeko arau eta gomendio ugari argitaratu dituzte azkenaldian. Beraz, eta arestian aipatu dugun moduan, zalantzak sor daitezke eta noiz edo noiz gatazkaren bat. Horregatik, ezinbestekoa da

arauak zehaztea. Dena dela, arau horiek guztiz beharrezkoak izanik ere, hasteko, erabiltzaile guztien sena aldarrikatuko dugu hemen eta orain, elkarbizitza egoki baterako abiapuntua, eta noski, errespetua.

### Oinezkoak: ahulenak

Kontuan hartu behar dugun lehen gauza zera da: oinezkoak dira erabiltzaile ahulenak. Horregatik, ziklistak abiadura mantsotu beharko du oinezkoen artean ibili behar badu, are gehiago haurrak nahiz zaharrak daudenean. Ziklista atzetik gerturatzen bada, txirrina jotzea oso lagungarria izango zaio, oinezkoak ohartarazteko. Eta aurreratu behar baditu, neurrikoei berriz, zehaztutako lekuetatik gurutzatzea, txirrindularien bidean ustekabea ez sartzea eta bat-bateko mugimendurik edo norabide aldaketa ustekabeak ez egitea gomendatzen zaie, gainontzeko erabiltzaileen ibilia baldintzatu dezaketelako. Oinezkoek ziurtatu beharko dute ez dietela traba egiten bizikletei eta gainerako ibilgailu baimenduei (bakarrik ibili edo taldean, hurrekin nahiz lasterka). Adibidez, taldean doazenean oinezkoek ekidin behar dute bide erdian gelditzea, edota besteei igarotzen galarazten dien hesi moduko bat eginez ibiltzea.

Bidegorri bananduetan, non ziklistentzako eta oinezkoentzako erreie bana dagoen, bakoitza harentzako espresuki moldatutako erreitik ibiliko da, beti ere tokian tokiko seinaleek adierazten dutena errespetatuz. Zazpi urtera arteko haurrak oinezkoen erreitik ibil daitezke bizikletaz pertsona nagusi batekin badoaz eta oinezkoen ibilia oztopatzen ez badute.

Erabilera bateratuko bidegorrietan, aldiz, oinezko eta ziklistentzako erreie desberdinak ez daudenez, trafiko modu biek elkarrekin bizi behar dute. Errei bakoitzean ziklistak eta oinezkoak topatuko ditugu. Horregatik, oinezkoak ezkerretik ibiliko dira (ibiliaren noranzkoan), eta ziklistak aurrez aurre eta eskuin aldetik agertuko zaizkie. Hortaz, bizikleten noranzkoaren kontra ibiliko dira oinezkoak. Modu honetan, bi trafikoei hobeto ikusiko dute elkar.

### Hiriguneetan

Bestalde, hiriguneetan oinezkoek duten lehentasuna errespetatu behar dute ziklistek espaloitik



### Ezinbestekoa da arauak zehaztea eta gomendioak ematea sor daitezkeen zalantzak argitzea

ibiltzea baimentzen zaien kasuetan. Seinaleei ere kasu egin behar diete. Gomendagarria da 5 kilometro orduko abiadura ez gainditzea eta, bide ziklistan barrena joanez gero, 15 kilometro ordukoa. Erraien ondoan umerik edo zaharrik dagoen begiratzea komeni da. Bestetik, egoera berezietan bizikletatik jaiste gomendatzen da eta semaforoak eta oinezkoen pasabideak errespetatzea. Gomendio eta arau hauen helburua elkarbizitza hobetzea da. Gure esku dago eta denok irabaziko dugu.

(jarraitzen du) →

## Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarean nola ibili



### Ez egin trabarik

Ziklistek eta oinezkoek debekatuta dute bidegorriaren zabalera osoa hartzea eta besteei pasatzen ez uztea. Gomendatzen da bidean ustekabeen ez sartzea eta bat-bateko mugimendurik edo norabide aldaketa ustekabeak ez egitea.

### Bide partekatua

Bide tarte partekatuetan, ziklistak, oinezkoak eta ibilgailu motordunak ibil daitezke. Ziklistek eskuin aldetik zirkulatu beharko dute -legeak hala dio-, baldin eta oinezkorik ez badago. Kasu horretan, ezkerretik hartu beharko diete aurrea oinezkoek.



### Txirrina

Komeni da bizikleta-txirrina eramatea, bidegorrian zabiltzala besteak ohartarazteko.

### Erabilera bateratuko bidegorria

Trafiko modu biek elkarrekin bizi behar dute. Horregatik, oinezkoak ezkerretik ibiliko dira (ibiliaren noranzkoan), eta ziklistak aurrez aurre eta eskuin aldetik agertuko zaizkie.



### Bidegorri banandua

Bidegorri bananduek errei bi dituzte bereizita, ziklistentzako eta oinezkoentzako. Bide-lerro bakoitzaren noranzkoa agertzen du seinale honek.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

*Gipuzkoa*  
BERRIA

  
**Bizikletaz**

[www.gipuzkoabizikletaz.net](http://www.gipuzkoabizikletaz.net)